

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 50.000 euro jarriko ditu enpresa-proiektu berrien hasierako gastuak diruz laguntzeko

Deialdi berri honen helburua ekintzailletza sustatzea da

Miércoles, 07 de agosto de 2013

Nafarroako Gobernuak 50.000 euro jarriko ditu enpresa-proiektu berrien hasierako gastuak diruz laguntzeko, Foru Komunitatean ekintzailletza sustatze aldera.

[Deialdi](#) berri honetan 2012ko urriaren 1etik 2013ko irailaren 30era arte egindako proiektuak aurkeztu daitezke, eta diru-laguntzak gastu hauek ordaintzeko izango dira: jarduera berriari ekiteko zerga, tasa eta baimenak; liburu ofizialak legezatzeko gastuak; elkargo ofizialetan izena emateko kuotak; jabetza industrial eta intelektuala erregistratzeko gastuak; web-domeinuak erregistratzeko eta Interneteko konexioaren alta egiteko gastuak; sozietatea sortzeko gastuak (notarioria eta erregistroak); eta langile autonomoen Gizarte Segurantzako kuotak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa gastu horien %70ekoa izango da eta proiektu bakoitzak gehienez 500 euro jasoko ditu. Onuradunak izan daitezke bai pertsona fisikoak, bai pertsona juridikoak, betiere enpresa Nafarroan kokatua badago eta zerga-helbidea ere Nafarroan badauka.

Eskariak irailaren 15era arte aurkeztu daitezke, [Nafarroako Gobernuaren Erregistroren](#) batean, [Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko](#) 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bulegotan edo Internet bidez, [Nafarroako Gobernuaren zerbitzuen katalogoan](#).